

ERMUTIK EUSKAL DIASPORARA WHATTSAPEZ

Kaixoo!

Ermua BHIko ikasle talde bat gara, eta hurrengo proiektua gauzatzeko zuen laguntza behar dugu.

Hona hemen gure erronka:

Whatsapp hau munduan zehar sakabanatuta dauden Euskal Etxe guztietara heltzea dugu helburu. Mezu hau noraino eta zenbat denboran hedatu daitekeen aztertu nahi dugu. Kontakturik eman gabe, taldez talde zabalduz nora arte hel gaitzke? Jasoko ote dugu erantzunik?

Sare honetako euskaldunoi mezu hau zabaltzeko eskatzen dizuegu batetik, eta bestetik Euskal Etxe ezberdinetatik erantzunik jasotzen baduzue, mezu horiek ere zabaldu Ermura heldu arte.





ERMUTIK EUSKAL DIASPORARA WHATTSAPPEZ

Whatsapp-aren hedapen gaitasuna EUSKARAZ. BLOG-a + BIDEOA

a. Esperimentua: Nora arte heldu daiteke euskara hutsean idatzitako Whatsapp bat? Zein da euskaldunon saretze gaitasuna? Zein da sare sozial honen hedatze gaitasuna?

- Euskaraz Whatsapp bat idatziko dugu. Whatsapp honekin munduan zehar sakabanatuta dauden euskaldunengana heldu nahi dugu, munduko euskal etxe ezberdinetara hain zuzen ere. Ez gara jarriko harremanetan euskal etxe konkretuekin, ez, horrek ez baitu ezer frogatzen.
- Guk Whatsapp-a idatzi eta gure taldeekin partekatuko dugu, eta espero duguna hurrengo da; hauek ere berean beste talde batzuekin partekatzea, eta hauek beste batzuekin... horrela AEB, TXINA ETA BESTE HAMAIKA HERRIALDERA IRITSI ARTE. Munduari bira Ermutik hasita euskara hutsean.
- Esperimentu honek gainera FEEDBACK-ak bat eskatzen die hartzaileei (euskal etxe ezberdinetako ordezkari), beraien argazki edo bideo labur bat bidaltzea.
- Erantzunak jasoko ditugu? Ez(hizkuntza izan al da oztopoa)? Zenbat hedatu da gure mezua? Erantzunak jasotzen baditugu, zenbat denboran jaso ditugu? Nola heldu zaizkigu? Noiz heldu zaizkigu?

b. Esperimentua izaten hari den difusio eta arrakasta kontuan izanik, nola biribildu genezake proiektua? Zabaldu dezakegu ikastetxera? Beste mintegi batzuen parte hartzea bultzatu? Baita herri mailan?

- i. Batxilergoko ikasleekin:
 1. Hasteko Euskal diaspora aurkeztu ikasleei;
 - a. Zer da?



IKT II BATXILERGO BIGARREN MAILAKOEN PROIEKTUA

- b. Nola funtzionatzen du?
 - c. Non dago?
2. Bertsoak
 3. Elkarrizketak
 4. Euskal dantzak(tutorialak?)
- ii. DBH1, DBH2, DBH3, DBH4: Maila ezberdinetan jarduera ezberdinak planteatu daitezke;
1. Hasteko Euskal diaspora aurkeztu ikasleei;
 - a. Zer da?
 - b. Nola funtzionatzen du?
 - c. Non dago?
 2. Skype bidezko elkarrizketak.
 3. Zer eskaini ahal diegu diasporan bizi diren pertsona hauei. Nahi al dute norbaitekin kontaktatu?
 4. Proposamen ezberdinak jaso behar ditugu edo jaso nahi ditugu...

c. Bideoa:

- i. Ba al dago munduari bira ematerik euskaraz?
- ii. Guk Ermuan hasita whatsapp medio mundura heltzeko saiakera egin dugu. Gure mezua Euskal Diasporara heltzea da gure erronka.
- iii. Zer da Euskal Diaspora? Zenbat herrialdetan dugu euskaldunok presentzia? Zenbat euskaldun daude munduan? Nola antolatuta? Pertsonai xeblebre edo famatuak?
- iv. Nola komunikatu gaitzke beraiekin?
- v. Gure esperimentuaren emaitzak aurkeztu, erantzunak eta denborak
- vi. Ze mezu bidaliko dugu GURE BIDEOAN????
 1. Alde batetik ESKERRAK EMAN BEHARKO DIZKIEGU ERANTZUN DUTEN EUSKALDUN GUZTIEI, BAITA ERE MEZUA ZABALTZEN LAGUNDU DUTENEI ERE.
 2. EUSKARAK BEREZ EZ DAUKALA MUGARIK, GUK JARTZEN DIZKIOGUNAK BAKARRIK?
 3. WHATTSP-EZ ERE EUSKARAZ EGITEKO? BAITA GAINONTZEKO SARE SOZIALETAN ERE?



IKT II BATXILERGO BIGARREN MAILAKOEN PROIEKTUA

4. MUNDURA IDENTITATE PROPIO BATEKIN ATERATZEAREN ABANTAILAK; ELKARTASUNA

d. Bloga:

- i. Blogean esperimenduaren emaitzen berri emateaz gain, beste sare sozial batzuen inguruko informazio interesgarri eta baliagarria partekatuko dugu; instagram, you tube, twitter...Euskara eta euskaldunon ikuspegitik? Sare sozial hauetan dugun presentzia aztertuz?
- ii. Ikastetxean proiektu honen inguruan egiten ditugun jarduera ezberdinen berri emateko erabiliko dugu baita.